

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

5687

6/2021 LEGEA, urriaren 28koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak 6/2021 Legea, urriaren 28koa, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzekoa onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Gizarteak gardentasun handiagoa eskatzen duenez jarduera publikoan eta komeni denez Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araubide juridikoaren zenbait alderdi aldatzea, beharrezkoa da independentziaren eta inpartzialtasun objektiboaren printzipioak bermatzeko neurriak sustatzea euskal sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren kontrol- eta fiskalizazio-organoak indartu ahal izateko. Lege honen helburu nagusia lortze aldera, baldintza berriak ezartzen dira Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izateko, eta Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkuraren hiru bostenen aldeko botoa eskatzen da. Ildo beretik, abstentzio, errekusazio eta bateraezintasunen kasuak ere aldatzen dira.

Halaber, emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunaren aldeko apustuak paretotasun hori indartuko duten neurriak sartzeari eskatzen du. Horretarako, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak emakumeen eta gizonen artean modu orekatuan izendatzeko beharra sartzeari.

Lehen artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/988 Legearen 4. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak bere funtzioak beteko ditu independentziaz, autonomiaz Eusko Legebiltzarrak onartutako aurrekontuaren betearazpenari dagokionez eta ordenamendu juridikoarekiko erabateko menpekotasunez.

2.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren aurrekontuaren betearazpenaren azterketa kanpo-auditoria batek egingo du, edo beste autonomia-erkidego bateko kanpo-kontrolako organoren batek (KKO), eta horretarako, erakunde publiko horiekin dagozkion hitzarmenak sinatu beharko ditu. Fiskalizazio hori Eusko Legebiltzarrari helaraziko zaio lege honen 13.3 artikuluan aipatzen den urteko txostenaren eranskin gisa».

Bigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 8. artikuluari 3. zenbakia gehitzen zaio, ondoko testua izango duena:

«3.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiak herritarren eskura jarriko du Gardentasun Atarian, modu zentralizatuan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako publizitate aktiboaren betebeharrari lotutako informazio guztia eta, betiere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egindako behin betiko fiskalizazio-txostenak, bere urteko lan-programa, urteko memoriak eta Eusko Legebiltzarrak onartutako urteko aurrekontua».

Hirugarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 15. artikulua aldatzen da, eta honela geratuko da:

«1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak goi-mailako titulu akademikoa dutenen artean aukeratuko dira, besteak beste, Zuzenbidean, Ekonomia Zientzietan edo Enpresa Zientzietan lizentziadun edo graduatuen, edo goi-mailako titulu baliokideak dituztenen artean,

baldin eta gaitasun aitortua eta bermatua badute Epaitegiaren eremu funtzionalean eta, betiere, gutxienez hamabi urteko esperientzia profesionala badute.

2.– Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak hautatuko ditu Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak eta haren hiru bostenen aldeko botoa beharko da. Hautagaien aurkezpenean gizon eta emakumeen presentzia orekatua zaindu beharko da.

3.– Hautaketa efektiboa izango da hautatua bere karguaz jabetzen den egunetik hasita, dagokion izendapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian behin argitaratu ondoren».

Laugarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 16. artikulua 4. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratuko da:

«4.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek epaileentzat jarrita dauden ezgaitasun-arrazoi, bateraezintasun eta debeku berberak izango dituzte. Betiere, bateraezina izango da ondorengo egoerekin:

a) Eusko legebiltzarkidea izatea.

b) Diputatuen Kongresuko diputatua izatea.

c) Senataria izatea.

d) Kontuen Auzitegiko kidea edo sektore publikoko kanpo-kontrolako beste edozein organotako kidea izatea.

e) Alderdi politikoetan, zentral sindikaletan edo enpresa-elkarteetan zuzendaritza-funtzioak edo funtzio exekutiboak betetzen dituen kidea izatea.

f) Estatuko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo lege honen 2.1.a artikuluan aipatzen diren erakundeekin parekagarriak diren erakundeetako edozein kargu politiko edo administratibo betetzea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko edo lege honen 2.1.a artikuluan aipatzen diren erakundeetako edozein kargu politiko edo administratibo betetzea.

h) Bere lanbidean edo beste edozein jarduera liberalean, merkataritzakoan edo laborean aritzea, ordaindua izan edo ez, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoetan izan ezik, betiere artikulua horretan ezarritako baldintzak betetzen badira.

i) Herri-hautapeneko beste edozein ordezkari-tza-manamendu izatea, aurreko ataletan jasota ez dagoena.

j) Izendapen askeko edozein kargu politiko betetzea.

k) Herri Kontuen Euskal Epaitegian kontu-emaila den elkarte edo fundazio batean zuzendaritza-funtzioak betetzea.

l) Edozein administrazio publikotan zerbitzu aktiboan egotea.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek, jardunean dauden bitartean, ezin izango dute beste kargu publikorik bete. Halaber debekatuko zaie alderdi politiko edo sindikatu baten ordezkari-tza-jardutea.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideek utzi egin beharko dute eragin diezaiekeen bateraezintasun-egoera oro izendapena egin eta hamar eguneko epean eta karguaz jabetu baino lehen. Idatziz egingo da ukoa eta Legebiltzarreko Mahaiari zuzenduko zaio, lehendakariaren bidez. Hala egiten ez badute, ulertuko da izendapenari egiten diotela uko».

Bosgarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 16. artikulua 6. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratuko da:

«6.– Epaitegiko kideen agintaldia sei urtekoa izango da gehienez, hautaketa gauzatzen denetik zenbatzen hasita, eta kideak beste agintaldi baterako baino ezingo dira berriz hautatu. Hautaketa egiten bada plaza hutsak betetzeko, horrela hautatua izan den kidearen agintaldia aurrekoarentzat aurreikusitako agintaldiaren iraupenera mugatuko da».

Seigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 16. artikuluari 7. apartatu berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«7.– Osoko Bilkuraren eztabaidak isilpekoak dira. Eztabaidetan dauden pertsonak, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegian dituzten funtzioen ondorioz eztabaida horien berri dutenek ere, isilpean gorde beharko dituzte eztabaidok, orobat datuen babeserako araudia errespetatuz».

Zazpigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legeari 16 bis artikulua berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«16 bis artikulua.– Abstentziaoa.

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideentzat abstentzio-arrazoi dira ondoren zehazten diren hauek:

a) Interes pertsonala izatea fiskalizatutako gaian, enpresan edo erakundean, edo interesdunetako batekin ebatzi gabeko auziren bat edo zerbitzu-harreman bat izatea.

b) Laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna izatea fiskalizazioaren xede den erakundearen kontu-emaila edo administratzaileetako batekin.

c) Adiskidetasun mina edo etsaitasun nabaria izatea a) eta b) apartatuetan aipatzen diren pertsonetako batekin.

d) Fiskalizazioaren xede izan diren egintza edo espedienteetan esku hartu izana Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izendatua izan aurretik.

2.– Nolanahi ere, abstentziorako interes pertsonal erabakigarria dagoela ulertu beharko da, fiskalizazio jakin bati dagokionez, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide bat ondoren aipatzen diren egoeretako batean dagoenean:

a) Erakundearen diru-sarreraren eta gastuen kudeaketa, ikuskapena eta kontu-hartzailetza bere ardurapean egon izatea fiskalizazioaren xede den aldian.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein erakundetako lehendakari edo zuzendari, edo administrazio-kontseiluko edo organo baliokide bateko kide izatea fiskalizazioaren xede den aldian.

c) Fiskalizatutako erakundearen edo harekin funtzionalki lotuta dauden erakunde edo organismoen dirulaguntzak jaso izana, funts publikoen kargura, fiskalizazioaren xede den aldian.

d) Epaitegiaren beraren aurrean kontu-emaila izatea fiskalizazioaren xedeari dagokionez.

e) Fiskalizazio baten xede diren abal edo zerga-salbuespenen onuradun izatea.

3.– 1. apartatuan zehaztutako abstentzio-arrazoi baten eraginpean dagoen Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak Epaitegiko lehendakariari jakinarazi beharko dio hark hurrengo

osoko bilkurako gai-zerrendan sar dezan. Osoko Bilkurak erabaki beharko du alegatu-tako abstentzio-arrazoa betetzen den ala ez eta, hala badagokio, beste kide bat izendatu beharko du fiskalizazioaren ardura har dezan.

4.– Osoko Bilkurak erabakitzen badu Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideren batek abstentzio-arrazoi bat betetzen duela beste kide baten zuzendaritzapean egindako txosten bati dagokionez, abstentzio-arrazoiak eragindako kideak ezingo du parte hartu txosten horren eztabaida eta bozketan osoko bilkuran».

Zortzigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean 16 ter artikulua berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«16 ter artikulua.– Errekusatzea.

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideren bat abstenitzen ez bada hala egin behar duenean, bere errekusatzea sustatu ahal izango da, dagokion prozeduraren bidez, Epaitegiko lehendakariak eskatuta edo ustezko abstentzio-arrazoa tartean den prozeduran interesa duen edozein pertsonak hala eskatuta.

2.– Errekusatzea sustatuta, Epaitegiko lehendakariak horren berri eman beharko dio lehenbailehen Osoko Bilkurari. Errekusatutako Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak errekusatze-arrazoa onartzen badu, abstentzio-kasuetarako ezarritako prozedura jarraitu beharko da.

3.– Errekusatutako Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak errekusatze-arrazoa ukatzen badu, Osoko Bilkurak bi kideko ponentzia bat izendatu beharko du, egokitzat jotzen dituen ikerketa-jarduketak modu sumarioan burutzeko. Jarduketa sumario horietan jaso beharko dira errekusatzea sustatu duen pertsonaren eta errekusatutako kidearen alegazioak.

4.– Ponentziak, izendatua izan denetik hamar eguneko epean, egindako jarduketan alderdi guztiak jasoko dituen txosten bat aurkeztu beharko dio Osoko Bilkurari. Osoko Bilkurak, errekusatutako kidea bertaratuko ez den ezohiko bilkura batean, errekusatzea ebatzi beharko du.

5.– Egindako jarduketetan errekusatutako Epaitegiko kidearen dolozko edo erruzko jarduketaren zantzurik badago abstenitu beharko zukeen gai batean esku hartu izanagatik, ardurak eskatzeko espediente bat ireki beharko da».

Bederatzigarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 17. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«17. artikulua.– Kide izaera galtzea.

1.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izateari uzteko arrazoi bakarrak hauek dira:

a) Heriotza.

b) Agintaldia amaitzea epea amaitzen denean.

c) Uko egitea, Eusko Legebiltzarrari idatziz aurkeztuta eta erakunde horretako Mahaiak onartuta.

d) Epailearen erabaki irmo batek deklaraturako ezgaitasun edo desgaitasun.

e) Delituaren ondoriozko epai irmo bidezko kondena.

f) Karguaren ondoriozko betebeharrak larriki ez betetzea.

2.– Aurreko epigrafeko a) eta b) apartatuetan aurreikusitako kasuetan, automatikoki izango da eraginkorra kide izaeraren galera, eta ez da horri buruzko berariazko adierazpenik egin beharko. Hala ere, aurreko epigrafeko b) apartatuan aipatutako agintaldi-amaiera gertatzen denean, kasuan kasuko Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kideak karguaren funtzioak betetzen jarraituko du kide berriak kargua hartzen ez duen bitartean. Gainerako kasuetan, kide izaera hori galduko da Eusko Legebiltzarraren kasuan kasuko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

3.– Aurreko 1. epigrafeko d), e) eta f) apartatuetan aurreikusitako kasuetan, Legebiltzarrak Epaitegiko kidearen funtzio eta eskubideak eten ahal izango ditu, hala badagokio, egin litekeen ikerketa-prozedurak irauten duen bitartean eta, gehienez ere, sei hilabetez. Funtzio eta eskubideen etetea eraginkorra izango da erabakitzen den unetik aurrera, baina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, haren berri jakinarazteko, hurrengo bost egunetan. Halaber, eteteak eragingo du, automatikoki eta hedadura berarekin, Epaitegiko funtzioak eta eskubideak eten zaizkion kideak Epaitegiaren antolamenduan dituen karguen etetea.

4.– Aurreko 1. epigrafeko f) apartatuan aurreikusitako kasuan, Epaitegiko kide izaera galduko du Eusko Legebiltzarraren bi herenak hautematen badu betebeharrak modu larrian ez direla bete».

Hamargarren artikulua.– Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean lehenengo xedapen gehigarri berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, lege hau onartu eta 12 hilabeteko epean, erakundearen barne-araubideko erregelamendua onartuko du, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dena, hala nola Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren webgunean».

Hamaikagarren artikulua. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legean bigarren xedapen gehigarri berri bat gehituko zaio, ondoko testua izango duena:

«BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren barne-araubideko erregelamenduak jaso beharko ditu, gutxienez, lege honen III. tituluko bigarren eta hirugarren kapituluetan ezarritakoaren erregulazioa eta garapena».

AZKEN XEDAPENA

Lege hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 3a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

DISPOSICIONES GENERALES

LEHENDAKARITZA

5687

LEY 6/2021, de 28 de octubre, de modificación de la Ley del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 6/2021, de 28 de octubre, de modificación de la Ley del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Dada la demanda social de mayor transparencia en la actividad pública, así como la conveniencia de modificar determinados aspectos del régimen jurídico del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, se hace preciso potenciar medidas tendentes a garantizar los principios de independencia e imparcialidad objetiva que permitan fortalecer los órganos de control y fiscalización de la actividad económica-financiera del sector público vasco. Con el fin de conseguir el objetivo principal de esta ley se establecen nuevos requisitos para ser elegida o elegido miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, requiriéndose el voto favorable de las tres quintas partes del Pleno del Parlamento Vasco. En la misma línea, se modifican también los supuestos de abstención, recusación e incompatibilidades.

Asimismo, la apuesta por la igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres requiere de la introducción de medidas que fortalezcan tal paridad. Para ello, se introduce la necesidad de una designación equilibrada entre mujeres y hombres miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

Artículo primero.– Se modifica el artículo 4 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que queda redactado con el siguiente tenor:

«1.– El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas ejercerá sus funciones con independencia, autonomía en la ejecución del presupuesto aprobado por el Parlamento Vasco y sometimiento pleno al ordenamiento jurídico.

2.– El examen de la ejecución presupuestaria del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas será llevado a cabo por una auditoria externa, o bien por alguno de los denominados órganos de control externo (OCEX) de otra comunidad autónoma, para lo que deberá suscribir los correspondientes convenios con dichos organismos públicos. Esta fiscalización se trasladará al Parlamento Vasco como anexo al informe anual al que se hace referencia en el artículo 13.3 de esta ley».

Artículo segundo.– Se añade un nuevo número 3 al artículo 8 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el siguiente texto:

«3.– El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas pondrá a disposición de la ciudadanía en el Portal de Transparencia, de una forma centralizada, toda la información sujeta a la obligación de publicidad activa, prevista en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno y, en todo caso, los informes definitivos de fiscalización emitidos por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, su programa anual de trabajo, las memorias anuales y el presupuesto anual aprobado por el Parlamento Vasco».

Artículo tercero.– Se modifica el artículo 15 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que queda redactado como sigue:

«1.– Las miembros y los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas serán elegidos entre aquellas personas que estén en posesión de titulación académica superior, entre otras, las personas licenciadas o graduadas en Derecho, en Ciencias Económicas o Empresariales, o con títulos superiores equivalentes, que dispongan de reconocida competencia garantizada en relación con el ámbito funcional del Tribunal y, en todos los casos, con una experiencia profesional de al menos doce años.

2.– Las miembros y los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas serán elegidos por el Pleno del Parlamento Vasco, requiriéndose el voto favorable de sus tres quintas partes. En la presentación de las candidaturas deberá velarse por la presencia equilibrada de hombres y mujeres.

3.– La elección será efectiva desde la fecha en que la persona electa haya tomado posesión de su cargo una vez publicado el correspondiente nombramiento en el Boletín Oficial del País Vasco».

Artículo cuarto.– Se modifica el apartado 4 del artículo 16 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que queda redactado como sigue:

«4.– Las miembros y los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas estarán sujetos a las mismas causas de incapacidad, incompatibilidades y prohibiciones establecidas para los jueces. Será, en todo caso, incompatible con la condición de:

a) Parlamentaria o parlamentario vasco.

b) Diputada o diputado en el Congreso de los Diputados.

c) Senadora o senador.

d) Miembro del Tribunal de Cuentas o de cualquier otro órgano de control externo del sector público.

e) Miembro que ostente funciones directivas o ejecutivas en partidos políticos, en centrales sindicales y en asociaciones empresariales.

f) Cualquier cargo político o administrativo del Estado, de otras comunidades autónomas o de los entes asimilables a los que se refiere el artículo 2.1.a de esta ley.

g) Cualquier cargo político o administrativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco o de los entes a los que se refiere el artículo 2.1.a de esta ley.

h) El ejercicio de su profesión o de cualquier otra actividad liberal, mercantil o laboral remunerada o no, a excepción de las previstas en el artículo 17 de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos, siempre que se cumplan las condiciones establecidas en dicho artículo.

i) Cualquier otro mandamiento representativo de elección popular, no recogido en los apartados anteriores.

j) Cualquier cargo político de libre designación.

k) Desempeño de funciones directivas en una asociación o fundación que tenga la condición de cuentadante en el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

l) Permanencia en el servicio activo en cualquier administración pública.

Los miembros y los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, mientras se hallen en activo, no podrán desempeñar otros cargos públicos. Así mismo, les estará prohibido actuar en representación de un partido político o sindicato.

Los miembros y los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas deberán cesar en toda situación de incompatibilidad que pudiese afectarles dentro de los diez días siguientes a su nombramiento y antes de tomar posesión. La renuncia se hará por escrito y se dirigirá a la Mesa del Parlamento, a través de su presidente. En caso contrario se entenderá que renuncia a la designación».

Artículo quinto.— Se modifica el apartado 6 del artículo 16 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que queda redactado como sigue:

«6.— El mandato de los miembros y los miembros del Tribunal tendrá una duración máxima de seis años, a contar desde el momento de efectividad de su elección, y sus miembros solo podrán ser reelegibles por un mandato más. Cuando la elección se produzca como consecuencia de la cobertura de vacantes, el mandato de la miembro o el miembro así elegido tendrá una duración limitada a la prevista para su predecesor».

Artículo sexto.— Se añade un nuevo apartado 7 al artículo 16 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el siguiente tenor:

«7.— Las deliberaciones del Pleno tienen carácter reservado. Tanto las personas que asisten a las deliberaciones, como las que tienen conocimiento de estas por razón de sus funciones en el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, deben guardar secreto sobre las deliberaciones, respetando además la normativa de protección de datos».

Artículo séptimo.— Se añade un nuevo artículo 16 bis a la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el siguiente tenor:

«Artículo 16 bis.— Abstención.

1.— Son causas de abstención para los miembros y los miembros del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas las siguientes circunstancias:

a) Tener interés personal en el asunto, la empresa o el ente fiscalizado, o tener alguna cuestión litigiosa pendiente o una relación de servicio con alguna persona interesada.

b) Tener parentesco de consanguinidad hasta el cuarto grado o de afinidad hasta el segundo grado con alguno de los cuentadantes o administradores del ente objeto de fiscalización.

c) Tener amistad íntima o enemistad manifiesta con alguna de las personas a las que se refieren los apartados a) y b).

d) Haber intervenido en los actos o expedientes objeto de fiscalización antes de haber sido designada o designado miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

2.— En cualquier caso, deberá considerarse que existe interés personal determinante de abstención, en cuanto a una fiscalización concreta, cuando una miembro o un miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas se haya encontrado en alguna de las siguientes circunstancias:

a) Haber tenido a su cargo la gestión, la inspección o la intervención de los ingresos y los gastos del ente en el periodo objeto de la fiscalización.

b) Haber sido titular de la presidencia o la dirección, o miembro del consejo de administración o de un órgano equivalente, de cualquier entidad integrada en el sector público del País Vasco en el período objeto de fiscalización.

c) Haber percibido subvenciones del ente fiscalizado o de los entes y organismos que se relacionan con aquel funcionalmente, con cargo a fondos públicos, en el período objeto de fiscalización.

d) Haber sido cuentadante ante el propio Tribunal en relación con el objeto de la fiscalización.

e) Haber sido beneficiaria o beneficiario de avales o de exenciones fiscales objeto de una fiscalización.

3.– La miembro o el miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas afectado por alguna de las causas de abstención determinadas por el apartado 1 deberá comunicarlo a quien ostente la presidencia del Tribunal para que lo incluya en el orden del día del pleno siguiente. El Pleno deberá decidir si concurre o no la causa de abstención alegada y, en su caso, deberá designar a otra u otro miembro para que se haga cargo de la fiscalización.

4.– En caso de que el Pleno acuerde causa de abstención de una miembro o un miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en relación con un informe elaborado bajo la dirección de otra u otro integrante, la persona afectada por la causa de abstención no podrá participar en el debate y votación de este informe en el pleno».

Artículo octavo.– Se añade un nuevo artículo 16 ter a la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el siguiente tenor:

«Artículo 16 ter.– Recusación.

1.– En caso de que una miembro o un miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas no se abstenga cuando deba hacerlo, podrá promoverse su recusación mediante el correspondiente procedimiento instado por quien ostente la presidencia de dicho Tribunal o por cualquier persona interesada en el procedimiento en el que concurre la presunta causa de abstención.

2.– Promovida la recusación, quien ostente la presidencia del Tribunal deberá informar de ello al Pleno cuanto antes. Si la miembro o el miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas recusado admite la causa de la recusación, deberá seguirse el procedimiento establecido para los casos de abstención.

3.– Si la miembro o el miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas recusado niega la causa de la recusación, el Pleno deberá nombrar una ponencia de dos miembros para llevar a cabo, de forma sumaria, las actuaciones indagatorias que se consideren pertinentes. Estas actuaciones sumarias deberán contener las alegaciones de la persona que ha promovido la recusación y las de la miembro o el miembro recusado.

4.– La ponencia, en el plazo de diez días desde que ha sido nombrada, deberá presentar al Pleno un informe que contenga todos los aspectos de las actuaciones realizadas. El Pleno, en una sesión extraordinaria a la que no asistirá la miembro o el miembro recusado, deberá resolver la recusación.

5.– Si en las actuaciones realizadas hay indicios de una actuación dolosa o culposa de la miembro o el miembro del Tribunal recusado por haber intervenido en un asunto en el que debería haberse abstenido, deberá iniciarse un expediente para exigir responsabilidades».

Artículo noveno.— Se modifica el artículo 17 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, que queda redactado con el siguiente tenor:

«Artículo 17.— Pérdida de la condición de miembro.

1.— Las únicas causas de pérdida de la condición de miembro del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas son las siguientes:

a) Por fallecimiento.

b) Por extinción del mandato cuando expira el plazo.

c) Por renuncia escrita presentada al Parlamento Vasco y aceptada por la Mesa de esta institución.

d) Por incapacidad o inhabilitación declarada por decisión judicial firme.

e) Por condena mediante sentencia firme por causa de delito.

f) Por incumplimiento grave de las obligaciones derivadas del cargo.

2.— En los supuestos previstos en los apartados a) y b) del epígrafe anterior, la pérdida de la condición de miembro tendrá eficacia automáticamente, sin necesidad de declaración expresa alguna al respecto. No obstante, cuando el cese se produzca por extinción del mandato del apartado b) del epígrafe anterior, la miembro o el miembro del Tribunal Vasco de Cuentas de que se trate seguirá ejerciendo las funciones del cargo mientras no tome posesión la nueva miembro o el nuevo miembro. En los demás supuestos, tal pérdida de condición se producirá a partir de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del correspondiente acuerdo del Parlamento Vasco.

3.— En los supuestos previstos en los apartados d), e) y f) del epígrafe 1 anterior, el Parlamento podrá suspender en sus funciones y derechos a la miembro o el miembro del Tribunal, mientras dure el procedimiento de investigación que, en su caso, pueda seguirse y, como máximo, durante seis meses. La suspensión será efectiva desde el momento en que se acuerde, aunque habrá de ser publicada para su general conocimiento en el Boletín Oficial del País Vasco dentro de los cinco días siguientes. La suspensión producirá también, automáticamente y con la misma extensión, la de los cargos que ocupe la miembro o el miembro suspenso en la organización del Tribunal.

4.— En el supuesto previsto en el apartado f) del epígrafe 1 anterior, la pérdida de la condición de miembro del Tribunal se producirá en virtud de la apreciación del incumplimiento grave de las obligaciones por las dos terceras partes del Parlamento Vasco».

Artículo décimo.— Se añade una nueva disposición adicional primera a la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el siguiente tenor:

«DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas aprobará, en el plazo de 12 meses desde la publicación de esta ley, el reglamento de régimen interno de la institución, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, así como en la web del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas».

Artículo undécimo.– Se añade una nueva disposición adicional segunda a la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, con el siguiente tenor:

«DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

El reglamento de régimen interno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas deberá contemplar, al menos, la regulación y desarrollo de lo dispuesto en los capítulos segundo y tercero del título III de esta ley».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2021.

El Lehendakari,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.